



Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 16koa. Horren bidez, Errenteriako Udalari gomendatzen zaio pertsona bati erroldan izena eman diezaiola.

Aurrekariak

1. Pertsona bat Arartekora zuzendu udalak ez baitzion haren izen-ematea udal erroldan onartzen.

2007ko abuztuaren 8an (...) jaunak Errenteriako Udaleko udal erroldan izena ematea eskatu zuen, haren (...) etxebizitzan.

2. Haren eskakizunaren erantzunean, udalak, abuztuaren 23an, herritarrari jakinarazi zion maiatzaren 18ko osoko bilkuran Gipuzkoako Foru Aldundiari higiezina uzteko eskaera egitea erabaki zuela. Higiezina aipatutako helbidean dago kokatua eta ez zegoen aurreikusita inolako bizigarritasun baimenik ematea. Udalak gaineratu zuen aipatutako etxebizitzan ez ziotela biztanleriaren erroldan izena emango eta okupatzen ari zen etxebizitza uzteko eskatu zioten. Idazkian ez zituen aipatzen ukatzearen aurrean bidezkoak ziren ez zuzenbideko oinarriak ez baliabiderik.
3. 2007ko abuztuaren 28an interesdunak komunikazio horren kontra birjartzeko errekurtsio egin zuen. 2007ko irailaren 3an Errenteriako Udalak erantzun zion etxebizitzaren jabetza baimena ez zuela, beraz, etxebizitza okupatzea legez kontrakoa zela. Horrez gain, esan zion udalak ez duela baimentzen eta ez duela baimenduko bizigarritasuna, gauzaturiko egintzen bidez, eta berriro ere etxebizitza uzteko eskatu diote. Oraingo horretan ere, ez zituen aipatzen ukatzearen aurrean idazkian bidezkoak ziren ez zuzenbide oinarriak, ez baliabiderik.
4. Kexari behar bezalako izapidetzea emate aldera, erakunde honek gertakari horiei buruzko informazioa eskatu zuen. Informazio eskaeran kexan mantentzen dituen irizpenak aurreratu zituen, erroldan izena ematea ukatze bidez buruzkoak; erroldatzea eskatzen duten pertsonak udalerrian bizi direnean, kasu honetan gertatzen den moduan.
5. Haren erantzunean, udalak berriro ere aipatutako gertakariak azaldu ditu eta ondoren transkribatutakoa gaineratzen du:





“Jakin badakigu, gaur-gaurkoz (...) jaunak legez kanpo okupatuta duen etxebizitza ez duela utzi eta ez duela bere egoera zuritzen. Eta egia bada ere egoera faktikoak kontuan hartu behar direla etxebizitzan bizi direnak erroldatzeko orduan, horrek ez du esan nahi nahiko argudio denik edozein egoerapean izatezko egoera hori errekonozitzeko eta segurtasun juridikoa emateko, are gutxiago Alkatetza honek hasiera-hasieratik argi eta garbi utzi duelarik ez dituela baimenduko legez kanpoko okupazioak. Izan ere, ez balitz horrela jardungo, egoera paradoxiko baten aurrean aurkituko baiginateteke, hots, Administrazioak berak ezin izango luke legezkontasuna ezarri, ezta berari dagokion eremuan ere, zeinak, bide batez esateko, publiko izaera baitu. Nire ustez, ez da inondik inora babestu behar egoera “dagoena da” argudio faltasuaren pean eginiko espoliazioa, eta beraz, Administrazioa ez dago derrigortua legea betetzen ez duen eta etxebizitzatik irteteko eskaerei kasurik egiten ez dion –egoera hori zuritu gabe– lagun hark eginiko eskaera betetzera. Izan ere, hori horrela balitz, Administrazioak legez kanpoko egoerak babestuko lituzke eta, oraindik larriagoa dena, ez luke defendatzeko aukerarik izango berari egindako usurpazio baten aurrean.

Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 59.2 artikulua Udalarri eskumena ematen dio udalerrian erroldatu nahi duen pertsonak emaniko datuak benetakoak diren frogatzeko eta nortasuna, familia-egoera, bizi den etxebizitzaren titulua, etab. egiaztatzearen agiriak exijitzeko. Argi eta garbi dago eskumen hori ez dela modu testimonial batean jarduteko. Aitzitik, adierazpen hauen bidez, edo hobeto esanda, hauen ezaz jabetzaren aurkako jarrera bat emanez gero, Udala, Alkatearen bidez, derrigortuta dago eginiko eskariak ukatzera eta espoliatu duenari eskatzera jarrera hori utz dezan, kasu honetan, berehala etxetik irteteko. Beste mota bateko jarrerak ez luke zentzurik izando. Are okerrago, beste batzuk ere bide horri jarrai diezaioten bultzatuko luke. Legeak ez daude legez kanpoko jarrerak edota delituzkoak babesteko eginak. Alkatetza honek bere betebeharra betetzen du (...) jaunari bere jarrerari uko egin eta etxebizitzatik irteteko eskaera egiten dioenean. Eta aldi berean, bere eskubidea gordetzen du Legearen arabera jarduteko eta bere interesak defendatzeko, zeinak Errenteriako udalerraren orokorrak baitira.”

Hori guztia ikusita, kexan adierazitakoa eta jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:





Gogoetak

1. Erakunde honek haien udalerrian bizi diren erroldetan izena emateko arazoak dituzten pertsonen kexa ugari izapidetu ditu. Erroldan izena emateak pertsonen eskubideei eragiten die. Beraz, udalaren erabakiak, izena ematekoak edo ez, berebiziko garrantzia du. Biztanleriaren udal erroldan izena ematea ukatzeak herritar bihurtzearen eskubideak eta betebeharrak lortzea eragozten du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, TAOL. Era berean, oinarrizko eskubideak baliatzeari eragiten dio. Horren adibide da arazo publikoetan berdintasunean parte hartzeko eskubidea. Horrez gain, gizarte eskubideak baliatzeari ere eragiten dio, eta horren adibide da osasun txartela eskuratzea edo Etxebide etxebizitza zerbitzu publikoan izena ematea.

Erakunde honen erantzuna oso antzekoa da, arlo hau gobernatzen duen lege araubidea ikusita.

2. Errenteriako Udalak erakunde honi igorritako informazioan, erroldan izena emateko haren ukatzea, etxebizitzaren legez kontrako okupazioan arrazoitzen du. Beraz, aztertu beharrekoa da, arrazoibideak lege oinarria duen ala ez.

Lege araubideak (zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudia eta Estatistikako Institutu Nazionalaren ebazpenak) erroldan izena ematea higiezinaren okupazioaren legezkotasunetik edo legezkotasun ezatik ezberdintzen du. Arau horien arabera, izena emateak eta auzi juridikoek ez dute zerikusirik etxebizitza okupatzeari dagokionez. Gogoeta hori oso garrantzitsua da Errenteriako Udalak uste baitu erroldan izena ematea legez kanpoko jarduera bati irismena ematea izango litzatekeela. Errenteriako Udalak, gainera, usurpazio gisa kalifikatzen du, izan ere, pertsona horrek ez du errekerimendua bete, alegia, higiezina utziarazteko errekerimendua.

Bestalde, udalak bidali digun erantzunean, ukatzea, Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 59.2 artikuluan oinarritzen du *"El Ayuntamiento podrá comprobar la veracidad de los datos consignados por los vecinos, exigiendo al efecto la presentación del documento nacional de identidad o tarjeta de residencia, el libro de familia, el título que legitime la ocupación de la vivienda u otros documentos análogos"*. Erakunde honen ustez, udala ondasun publikoaren usurpazioaren kontra jarduteko bidea ematen ari da. Baina, nolana ere, legez ezarritako prozeduren bidez egin beharko da. Etxebizitza uzteko errekerimendua gauzatu ahal izateko, bitarteko legalak daude eta erroldan izena emanda edukitzeak ez du eragozten. Erroldan izena emateak ez





du ekiditen legez kanpo okupatutako higiezia uztea eta, alderantziz, legez kanpoko okupazioa ez da arrazoa erroldan izena ematea ukatzeko.

Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiaren 59.2. artikulua, udalari pertsonak adierazten dituen datuak benetakoak diren egiaztatzeko ahalmena ematen dio. Ez, ordea, okupazioaren legezkotasuna egiaztatzeko ahalmena. Pertsonak aurkeztu behar duen dokumentu zerrenda ez da itxia. Izan ere, "titulua edo antzeko dokumentuak" aurkeztu daitezke, baita udal txostena ere. Udal txostenak udalerriko lekuren baten bizilekua egiaztatzen du. Ikusiko dugun moduan, erroldan izena emateko balio du. Artikulu horrek udalari ahalmena ematen dio herritarrek, izena emateko unean, aitortzen dituen datuak haren identifikazioan adierazitakoekin bat datozen egiaztatzeko edo herritarra, bizi dela dioen etxebizitzan bizi dela egiaztatzeko. Hala ere, egiaztatzearen helburua ez da dokumentuen legezkotasuna epaitzea. Udalak irregulartasun edo gezur arrastorik badu, dagozkion jarduerak eskatu behar ditu.

3. Udal erroldan izena ematea araupetzen duen araudiak ez du baldintzatzen erroldan izena ematea, higiezia betetzeko legezko titulu bat lortzean, edo hirigintzako plangintzako arauak betetzean; eta arlo honen inguruko araudiak bereizi egiten ditu erroldan izena ematea, eta etxebizitza okupatzearen legezkotasunari buruz iritzia ematea. Arlo honetan garrantzitsua da Estatistikako Institutu Nazionalak emandako ebazpenak aipatzea, horien edukitik nahikoa argi geratzen baita zeintzuk diren udal erroldaren izaera eta xedea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 17. artikulua Estatistikako Institutu Nazionalari eskumena ematen dio egiaztapen egokiak burutzeko eta estatu mailan erroldako datuak biztanleriaren estatistikak egiteko oinarri bezala balio dezaten beharrezkoak diren jarduerak eta lanak udalei jakinarazteko. Urteko berrikusketen ondoriozko kopuruak ofizialak izan daitezzen eta udalek Hauteskunde Zentsuko datuak, behar bezala eguneratutakoak, igorri ahal izan ditzaten. Halaber, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariaren esku uzten du erroldatzearen arloan udalen, probintzietako aldundien, irltako kabildoaren eta kontseiluen, edo erakunde horien eta Estatistikako Institutu Nazionalaren artean sor daitezkeen desadostasunen ebazpena emateko eskumena.

Erroldatze Kontseilua ere araupetzen du, Ekonomia eta Ogasun Ministeriora atxikitakoa, Estatuko Administrazio Orokorraren eta erroldaren arloko toki erakundearen arteko lankidetzarako kide anitzeko organo bezala. Besteak beste, udal erroldak kudeatzeko beharrezkoak diren argibide teknikoak onesteko funtzioa du.





Jarraibide horien artean, lehenengo, udal errolda berrikusteko eta kudeatzeko udalentsako argibide teknikoak ezartzen dituen Ebazpena nabarmendu behar dugu, 1997ko apirilaren 1ekoa, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoa (BOE, 1997-04-11koa). Ebazpen horretan udal erroldan sortzen diren aldaketen izapideak egiteko prozedurari buruzko instrukzioak ezartzen dira, *“a fin de armonizar, las obligaciones de los ciudadanos de inscribirse en el padrón del municipio en que residen habitualmente y comunicar los cambios de residencia que les afecten, con el derecho a fijar libremente la residencia que reconoce la Constitución, así como coordinar las actuaciones entre los Ayuntamientos afectados”*. Bigarrenik, udal errolda eguneratzeko udalentsako argibide teknikoak ezartzen dituen Ebazpena, 1997ko uztailaren 4koa, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoa (BOE 2007-07-25ekoa). Araudi hori aplikatu behar dute udalek, izan ere, Estatistikako Institutu Nazionalarekin partekatzen dute eskumena, *“egon daitezkeen hutsak zuzendu eta datuen bikoiztasunak saiheste aldera”* (TAOL, 17. artikulua).

Ebazpen horien edukiak udalak lotzen ditu. Haien izaera juridikoa xedapen orokor batena da, izan ere, arautzeko helburua dute eta hartzaile kopuru mugagabeari zuzenduta daude, hau da, abstrakzio ukitua eta izaera ordenatzailea dute (Auzitegi Goreneko Hirugarren Salaren 1997ko maitzaren 5eko epaia: *“lo que caracteriza a éstas es su aptitud de inserción en el ordenamiento jurídico en abstracto, como fuente de plurales aplicaciones ulteriores...”*).

Erroldatzea eskatzen duten pertsonen izena emateko, udalak Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiaren (BLMA) 57. artikuluan ezarritako datuak bildu behar ditu eta, ikusi dugun moduan, egiazkoak ote diren ziurtatu (BLMA, 59.2. artikulua).

1997ko uztailaren 4ko Ebazpeneko 3. jarraibidean, aipatu artikulua araberan, udalak duen ahalmenaren norainokoa argitzen da. Ebazpen horri jarraiki, erroldaren kudeatzaileak, erroldan adierazten dituen datuak egiaztatzeko ahalmenaz baliatzerakoan, ez du ondoren bidegabetzat edo legez kanpokotzat har daitezkeen inolako jarduerarik baliozkotzen:

“El Padrón es el registro administrativo que pretende reflejar el domicilio donde residen las personas que viven en España. Su objetivo, es por tanto, dejar constancia de un hecho, por lo que, en principio, no debe resultar distorsionado ni por los derechos que puedan o no corresponde al vecino para residir en ese domicilio, ni por los derechos que podrían derivarse de la expedición de una certificación acreditativa de aquel hecho.



En consonancia con este objetivo. La norma fundamental que debe presidir la actuación municipal de gestión del Padrón es la contenida en el artículo 17.2 de la Ley de Bases de Régimen Local: Realizarán las actuaciones y operaciones necesarias para mantener actualizados sus Padrones de modo que los datos contenidos en éstos concuerden con la realidad.

Por ello, las facultades atribuidas al Ayuntamiento en el artículo 59.2 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales para exigir la aportación de documentos a sus vecinos tiene como única finalidad comprobar la veracidad de los datos consignados, como textualmente señala el propio artículo.

En consecuencia, tan pronto como el gestor municipal adquiera la convicción de que los datos que constan en la inscripción patronal se ajustan a la realidad, deja de estar facultado para pedir al vecino ulteriores justificaciones que acrediten aquel hecho.

Y, en concreto, la posibilidad de que el Ayuntamiento solicite del vecino el título que legitime la ocupación de la vivienda (art. 59.2 del Reglamento), no atribuye a las administraciones locales ninguna competencia para juzgar cuestiones de propiedad, de arrendamiento urbanos o, en general, de naturaleza jurídico-privada, sino que tiene por única finalidad servir de elemento de prueba para acreditar que, efectivamente, el vecino habita en el domicilio que ha indicado.

Por ello, este título puede ser una escritura de propiedad o un contrato de arrendamiento, pero también un contrato de suministro de un servicio de la vivienda (agua, gas, electricidad, teléfono, etc.) o incluso, no existir en absoluto (caso de la ocupación sin título de una propiedad ajena, sea pública o privada. En este último supuesto, el gestor municipal debería comprobar por otros medios (Informe de la Policía Local, inspección del propio servicio, etc.) que realmente el vecino habita en ese domicilio, y en caso afirmativo inscribirlo en el Padrón, con completa independencia de que el legítimo propietario ejercite sus derechos ante las autoridades o Tribunales competentes, que nunca serán los gestores del Padrón.

Cuando un ciudadano solicite su alta en un domicilio en el que ya consten empadronados otras personas, en lugar de solicitarle que aporte el documento que justifique su ocupación de la vivienda, se le deberá exigir la autorización por escrito de una persona mayor de edad que figure empadronada en ese domicilio". Cuando un ciudadano solicite su alta en un domicilio en el que ya consten empadronadas otras personas, en lugar de solicitarle que aporte el documento que justifique su ocupación de la vivienda, se le deberá exigir la autorización por escrito de una persona mayor de edad que figure empadronada en ese domicilio.





Si, con ocasión de este empadronamiento, la Administración municipal advirtiera que las personas que figuran empadronadas en ese domicilio lo han abandonado, aceptará el empadronamiento de los nuevos residentes en la vivienda conforme al procedimiento ordinario, y , simultáneamente, iniciará expediente de baja de oficio en su Padrón de las personas que ya no habitan en ese domicilio. Esa circunstancia podrá hacerse constar en el apartado observaciones de la certificación que pueda expedirse a instancia de los nuevos empadronados.

Y cuando el alta de se produzca en un establecimiento colectivo (residencias, conventos, etc. la autorización deberá ser suscrita por la persona que ostente la dirección del mismo. En estos casos se hará constar en el apartado tipo de vivienda, de la hoja patronal la mención colectivo. En los demás casos, el tipo de vivienda es familiar.

La facultad municipal de comprobación de los documentos que acrediten otros datos del empadronamiento (número del documento nacional de identidad, titulación escolar, etc.) deberá ejercitarse conforme al mismo criterio de exigir su aportación en la medida en que sea necesaria para adquirir la convicción de la veracidad de los datos consignados.

Por otra parte, como anteriormente se ha señalado, la obligación primaria del gestor patronal es el mantenimiento y actualización de la información contenida en el padrón. La Ley (artículo 17.1) y el Reglamento (artículo 63) prevén la colaboración de otras administraciones públicas para ayudar a los Ayuntamientos en esta misión, pero esta previsión en ningún caso sustituye aquella responsabilidad municipal, por lo que no hay duda de que los Ayuntamientos no deben esperar a la recepción de la información que puedan suministrarle otras Administraciones para actualizar cuantas variaciones se produzcan en la información padronal y de las que tengan conocimiento por cualquier otro medio.”

Erroldatze Kontseiluak honakoa erantzun du: 1997ko apirilaren 14ko Kontsulta, etxebizitza okupatzea legitimatzen duen titulua izateari buruzkoa.

“La facultad atribuida a los Ayuntamientos en el artículo 59.2 del Reglamento de Población para comprobar la veracidad de los datos consignados por los vecinos, exigiendo al efecto, entre otros documentos, la presentación del título que legitime la vivienda, tiene como única finalidad servir como un elemento de prueba para acreditar que el vecino efectivamente reside en el domicilio que a indicado, con independencia de que esté legalmente legitimado para residir en ese domicilio y/o de las acciones legales que puedan ejercitar los propietarios legítimos de la vivienda por su ocupación ilegal, pues el Padrón es un registro



administrativo que pretende reflejar el domicilio donde residen las personas que viven en España.

Por tanto, carecer del título que legitime a ocupación de la vivienda no inhabilita al ciudadano para su inscripción en el Padrón, pudiendo el Ayuntamiento recurrir a otros medios de prueba, como pueden ser contratos de algún servicio de la vivienda (agua, luz, gas...) o a informes de la Policía Local. Con respecto a otros medios de prueba que puedan ser aportados por los afectados, consistentes en certificaciones de vecinos, el Ayuntamiento dispone de sus propios medios para comprobar la veracidad de los datos, pudiendo aceptarlos como prueba o comprobar la residencia por sí mismo."

Azken batean, udal erroldan izena emateak ez du zerikusirik etxebizitzaren okupazio tituluarekin. Udalak jasotako datuak egiazkoak diren ala ez diren egiaztatzeko ahalmena du, baina horrek ez du esan nahi legezkontasunari buruzko iritzia eman dezakeenik edo etxebizitza okupatzea onartzen duenik. Udalak, ondasun publikoen erabilera arautzen duen araudia betearazteko, erroldan izena ematearena ez den legezko beste bitarteko eta tresna batzuk ditu. Gainera, legezko prozeduraren ondoren, pertsona etxetik irtenaraziko balute, udalak beharrezkotzat joko luke ofiziozko espedientea, erroldan baja emateko. Eta azpimarratu behar dugu, erroldak udalerrian bizi diren biztanleen kopuru erreala jaso behar duela.

4. Errolda administrazio erregistroa da eta haren funtzioa udalerrian bizi diren pertsona guztien bizilekua eta inguruabarrak jasotzea da bakarrik. "Administrazio informazioaren" erregistroa da, helburu gisa, administrazio publikoei beren funtzioak modu eraginkorrean garatzea errazteko informazioa ematea duena.

TAOLren 16. artikulua zera dio: *"udal errolda administrazio erregistro bat da eta hor daude jasota udaleko herritarrak. Bertako datuek frogatzen dute udalerrian bizi direla eta bertan dutela ohiko bizilekua. Datu horiekin egiten diren ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira ondorio administratibo guztietarako"*. Hortaz, erregistro horretan izena emateak udalerriko bizilekua eta etxebizitza bakarrik egiaztatzen du. Ez du legez kontrako inolako egoerarik baliozkotzen; aitzitik, errealitate baten berri ematen du.

Udala behartuta dago udalerrian bizi diren pertsonen erroldan izena ematera. TAOLren 17.2 artikulua araberak: *"Udalek erroldak eguneratuta izateko behar den guztia egin behar dute, bertan jasotako datuak errealitatearekin bat etor daitezen"*.



Aurreko ebazpenean, 1997ko uztailaren 4koan, erroldan izena eman dezaketen eta bizigarritasun baldintzak betetzen dituen etxebizitzarik, edo inolako etxebizitzarik, ez duten pertsonen kopurua aurreikusten da. 4. Instrukzioan, Baztertuen Erroldatzean, jarduera instrukzioak ematen dira ondorengo kasuetan:

“...Como se ha indicado en la norma anterior, el Padrón debe reflejar el domicilio donde realmente vive cada vecino del municipio. Siempre que se produzca esa realidad debe hacerse constar en el Padrón. Y de la misma manera que la inscripción patronal es completamente independiente de las controversias jurídico-privadas sobre la titularidad de la vivienda, lo es también de las circunstancias físicas, higiénico-sanitarias o de otra índole que afecten al domicilio.

En consecuencia, las infraviviendas (chabolas, caravanas, cuevas, etc. e incluso ausencia total de techo) pueden y deben figurar como domicilios válidos en el Padrón, ya que la realidad es en ocasiones así.

Las situaciones más extremas pueden plantear la duda sobre la procedencia o no de su constancia en el Padrón Municipal. El criterio que debe presidir esta decisión viene determinado por la posibilidad o imposibilidad de dirigir al empadronado una comunicación al domicilio que figure en su inscripción. En el caso de que sea razonable espera que esa comunicación llegue a conocimiento del destinatario, se le debe empadronar en esa dirección.

La correcta aplicación de ese criterio determina, por un lado, que se deba aceptar como domicilio cualquier dirección donde efectivamente vivan los vecinos, y, por otro, que pueda y deba recurrirse a una dirección ficticia en los supuestos en que una persona que carece de techo reside habitualmente en el municipio y sea conocida de los Servicios Sociales correspondientes.

Las condiciones que deberían cumplirse para ese tipo de empadronamiento son las siguientes:

- Que los servicios sociales estén integrados en la estructura orgánica de alguna Administración pública.*
- Que los responsables de estos servicios informen sobre la habitualidad de la residencia en el municipio del vecino que ese pretende empadronar.*
- Que los servicios sociales indiquen la dirección que debe figurar en la inscripción patronal, y se comprometen a intentar la práctica de la notificación cuando se reciba en esa dirección una comunicación procedente de alguna Administración pública.*





En esas condiciones, la dirección del empadronamiento sería la que señalen los Servicios Sociales: la dirección del propio servicio, la del albergue municipal, la del punto geográfico concreto donde ese vecino suele pernoctar, etc.

Evidentemente, para practicar este tipo de inscripción no es necesario garantizar que la notificación llegará a su destinatario, sino simplemente que es razonable esperar que en un plazo prudencial se le podrá hacer llegar.

Como ejemplo orientativo se puede imaginar el supuesto de una notificación enviada por la Oficina del Censo Electoral. La circunstancia de que una persona carece de techo no debe privarle de su derecho de sufragio, para lo cual es requisito imprescindible que esté inscrita en el Padrón municipal. Si los Servicios Sociales del municipio consideran razonable poder hacerle llegar la tarjeta electoral, se debe inscribir en el Padrón a ese vecino bien en la dirección donde se espera que él reciba directamente la notificación, o bien en la dirección donde los servicios Sociales la reciban para intentar transmitírsela al empadronado. Y, naturalmente, cuantas referencia se hacen a los Servicios Sociales son directamente aplicables a cualquier otro servicio municipal que pudiera cumplir ese mismo cometido...".

Ikusten den moduan, inolako etxebizitzarik ez duten pertsonen kasuan ere, erroldan izena ematea aurreikusten da. Araudia oso argi dago: Udalerrian bizi diren pertsonen udal erroldan izena emateko betebeharra dute. TAOLren 15. artikulua, bereziki aipatzen du "Espainian bizi den pertsona orok ohiko bizitokia duen udalerriko erroldan izena emateko betebeharra du". Eta aurrerago, honakoa adierazten du: "udal erroldan inskripzioa egin duten udalerriko bizilagunak dira". BLMAren 54. artikulua izena emateko betebeharra ezartzen du eta 55. artikulua honakoa dio: "54.1 artikuluan ezarri bezala, udalerria ohiko bizilekutzat duten eta udal erroldan izena emana duten pertsonak herriko biztanleak dira".

Zenbait udalek, udalerrian bizi diren pertsonen eskubidea ez mugatzearen, fikziozko helbidera jo dute. Horrela egin dute Bilbon, adibidez, etxebizitzarik gabeko pertsonen dagokienez; edo Pasaian, baimenik gabe jabari publikoko udal ondasun batean bizi diren pertsonen dagokienez.

5. 4/1996 Legeak, urtarrilaren 10ekoak, apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen, aldatu zuen. Horren bidez, udal erroldaren informatizazioa normalizatzen duen araudi berria ezarri zuen. Sistema berriak udal errolda jarraika eta informatizatuz kudeatzen du. Hori dela eta, errolda etengabe eguneratzen da, eta biztanleen kopurua, epe motzean, errealitatearekin bat etor dadin aukera gehiago dago. Lege aldaketaren ondorioz



jasotako jarraibideak: Ebazpena, 1997ko apirilaren 1ekoa. Horren bidez, erroldaren kudeaketa eta berrikusteari buruzko jarraibide teknikoak ematen zaizkie udalei. Ebazpena, 1999ko urriaren 6koa. Horren bidez, udal erroldak urtero berrikusi ondoren lortzen den zenbakizko laburpena Estatistikako Institutu Nazionalera bidaltzeko epea aldatzen da. Ebazpena, 2003ko abenduaren 29koa, udal erroldaren berrikuspenei buruzkoa eta biztanleriaren kopuru ofizialen proposamena lortzeko prozedurari buruzkoa. Ebazpen horien guztien helburua da, erroldan sortzen diren aldaketen izapideak antolatzea, udalen jarduerak koordinatzea eta informazioa trukitzea. Azken batean, udal errolda administrazio erregistro moduan kudeatzea.

Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudian udalak aurrera eraman beharreko eskumenak eta jarduerak jasotzen dira. Udalak erroldak eguneratuta mantentzeko arduradun gisa jarduten du, datuak errealitatearekin bat etor daitezten. Horrela, Estatistikako Institutu Nazionalaren ordezkotza burutzapena, BLMAren 62.2. artikulua, honako kasuetan aurreikusten da: aipaturako funtzioa edo ofiziozko alta edo baja gauzatzen ez badute, BLMAren 71. artikulua eta hurrengoak, edo laginketak eta kontrolak egitea eremu batzuetako erroldaren benetako egoera egiaztatzeko, BLMA 77. artikulua.

Egiaztatzeko betebeharrak eta ahalmen horrek helburutzat du erroldaren eta errealitatearen arteko desadostasuna ekiditea.

6. Azken batean, erakunde honen iritziz, (jauna) (kalea) zenbakian bizi den bitartean, udalak erroldatzeko eskaera onartu behar du.

EAEko Auzitegi Nagusiak, 2000ko martxoaren 21eko Epaian, aditzera eman zuen ez zela Alkatetzaren ukatzearen eskubidearekin bat etortzen eta, horretarako, honako arrazoibidea erabili zuen: *“su Alcalde, ante la solicitud de empadronamiento presentada cumpliendo los requisitos legales establecidos debió admitirla, resultando para tal reconocimiento intrascendentes las condiciones de habitabilidad de la vivienda u otras circunstancias urbanísticas que afecten a la misma para cuyo restablecimiento tienen las entidades locales otros cauces legales previstos, sin necesidad de negar la vinculación administrativa solicitada”.*

Kasu horretan badira beste bide batzuk legezkotasuna berrezartzeko, erroldan inskripzioa ukatzea ez da zuzena eta.





7. Azkenik, kexagileak aurkeztutako inskripzio eskaerari eta birjartzeko errekursoari udalak emandako erantzunari dagokionez, garrantzitsua da indarrean dagoen araudia gogoratzea, Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 53., 54. eta 89. artikulua. 2007ko abuztuaren 23ko eta irailaren 3ko ebazpenek ez dute horien kontra bidezkoak diren ez zuzenbideko oinarriak ez baliabiderik aipatzen. Ikusi dugun moduan, udal erroldan inskripzioa ukatzeak eskubide eta interes legitimoak mugatzen ditu. Beraz, garrantzitsua da kontuan hartzea ezarritako bermeak beti errespetatu behar direla.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

23/2008 GOMENDIOA, irailaren 16koa, Erreenteriako Udalarari egina

Udal erroldan kexagilearen inskripzio eskaera onar dezan.

